


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA




2022-03-11 / 726 ZENBAKIA / 18. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Euskararen bidean, merkatari-taldea

Euskara sustatu eta zerbitzu osatua emate aldera, Andoaingo zortzi merkatari euskaraz trebatzen hasi dira. AEKren eskutik ekin diote, Udalak sustatuta / 16



**Andoni Aizpuru**  
metereologoaren iritzi-artikulu  
ez-negua amaitzear denean / 2-3



**Dihanna Petrechenko**  
ukrainar gaztea eta bere haur txikia Andoainen dira, Irpin hiria atzean utzita / 11



## Euriak ere itzaliko ez duen sua

Plaza morea, manifestazioa, kultur ekitaldiak... Martxo hilabete morea da / 7-9

bertako  
igogailuak | ascensores

22. korrika  
HITZ EKIN  
Amurrioak Donostia  
2022ko martxoaren 11tik martxoaren 13ra

**EUSKARA,  
GURE HELBURU KOMUNA**

ARABA  
945 712 822

BIZKAIA  
946 523 935

GIPUZKOA  
943 903 450

NAFARROA  
848 870 917

DEITU EDO BISITATU  
[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)







Abenduaren 8an ateratako argazkian, Adarramendi zurituta agertzen zen. JONATHAN LOPEZ

# Negua joan da... etorri gabe!

Negu berezia izan da bukatu berri dena; euria egun gutxitan bota du, baina bota duen egunetan asko, eta elurra, apenas, Adarramendi behin bakarrik zuritu baitu; izotz egun asko izan ziren urtarrilean, baina tenperatura altuenen marka historikoak ere gainditu ziren

## Andoni Urbistondo URNIETA

'Negua joan da ta' abesten du Aiora Renteria Zea Mays taldeko abeslariak. Meteorologian, edo klimatikoki, negua abenduak, urtarrilak eta otsailak osatzen dute. Negua, beraz, joan da, baina ze negu izan dugu. Edo negurik izan al dugu?

Datuei erreparatu, z defininezake negua nolakoa izan den, eta ondorioa garbia da: berezia izan da, oso berezia. Hainbat arrazoiengatik. Arreta ematen duen lehena, nahiko eguzkitsua

izan dela, ekia ohi baino egun gehiagotan izan da agintari gurean. Antizikloia gustura pausatuta da gure gainean, edo Europa erdian, eta horrek eguzkia eta hego haize epela ekarri ditu gurera. Epeltasuna, egunez, gauak luzeak baitira ilbeltzean. Urteko hilabete hotzenaren datua deigarria da: 14 izotz egun izan ziren urtarrilean Andoainen, 10 Urnietan. Asko, negu osoan 15-18 izotz egun izaten baitira Beterri eskualdean batez beste.

Eguzkitsua bai, baina lehorra ez. Eta kasu honetan ere, negua berezia izan da. Euri asko egin baitu, baina egun gutxitan. Negua hasi eta berehala, abenduko lehen 10 egunetan euri jasa handiak bota zituen Euskal Herrian, eta, bereziki Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan. 284 litro neurtu ziren Andoainen, hilabete oso batean baino gehiago, eta 74 egun bakarrean. Pauta bera errepikatu zen urtarrilean: sei euri egun baino ez, baina 178 litro denera. Eta, urtarrilaren 9an, abenduko

## NEGUKO DATU ESANGURATSUENAK

### ANDOAIN

Datuak: Imanol Fernandez, @MeteoAndoain

#### 2021eko abendua Andoainen

- Abenduaren 1etik 11ra 284 litro neurtu ziren. Abenduaren 9an, egun bakarrean, 74 litro metro koadroko.
- Bigarren hamabostaldian euririk ez, izotz egunik apenas ez eta tenperatura beroenak oso beroak: 21/23 gradu hilabete bukaeran.

#### 2022ko urtarrila Andoainen

- Urtarrileko tenperatura epelenean marka guztiak hautsi ziren urteko lehen egunean, 24.3 gradu. Izotz egun asko urtarrilean, 14 egun 0 gradu azpitik, horietatik bost egun -2 gradu azpitik.
- 6 prezipitazio egun hilabete osoan, 178 litro neurtu ziren. Urtarrilaren 9an 79 litro bota zituen, eta hainbat erreka bere bidetik atera ziren.

#### 2022ko otsaila Andoainen

- Temperatura normalak, epel antzean. Izotz egun gutxi, bakarra 0 gradu azpitik. Prezipitazioei dagokionez, hilabete lehorra. 64 litro bakarrik, hilabete osoan.

### URNIETA

Datuak: Jonathan Lopez, @urnietameteo

#### 2021eko abendua Urnietan

- Hilabete batez besteko tenperatura: 10.95°, hilabete epela, bai minimoak, baita maximoak ere. Hilabete osoko tenperaturarik baxuena, 2 gradu. Bigarren hamabostaldian, tenperatura beroenak 15 graduko langa gainditu zuen egunero.

#### 2022ko urtarrila Urnietan

- Hileko batez besteko tenperatura normala izan zen, 7.8°. 10 izotz egun egon ziren, eta tenperatura minimoak baxuak izan ziren, batez beste: 3.4°

#### 2022ko otsaila Urnietan

- Izotz egun bakarra egon da, eta hileko tenperatura baxuena 0.7°-koa izan da. Beroenak oso epelak izan dira, ia 15 gradu batez beste. Hilabete egun guztietan gainditu zen 10 graduko langa.

egun berean, sekulako zaparrada: 79 litro egun bakarrean. Otsailean hautsi da kate hori, hilabete lehorra izan delako. 64 litro baino ez, eta epel samarra. Izotz egun bakarra izan da Andoainen otsaila guztian.

### Eta elurra, zer?

Ba ikusi ere ez, ia-ia. Eta ikusi dugunean, oso eskasa. Adarramendi neurgailu modura erabilita, datua oso deigarria da. Egundakarrean zuritu du Andoain eta Urnietako herritarren mendi kuttunean, eta egin zuenean ere, hutsaren hurrengoak. Aben-

duaren 8an bakarrik zuritu zuen, baina apenas zentimetro pare bat, eta 750 metrotik goiti. Egundakarrean joan zen, eta ez da berriro bueltatu gaurdaino. Herri honen ere ez du askoz egun gehiagotan zuritu, bospasei egun, baina 1.072 metro dituela aintzat hartuta, oso zenbaki txikia da. Agerkari honetan erreportajea argitaratu zen ez aspaldi, urte batzuk atzera Adarramendi neguan traje zuriz 45 egunez jantzi zela kontatuz. Eta zer diote Beterri eskualdean ditugun bi meteo friki ezagunenek, Jonathan Lopez urnietarrak eta

**URNIETAN  
URTARRILEKO  
EGUN GUZTIETAN  
GAINDITU ZEN 10  
GRADUKO LANGA**

**ANDOAINEN  
OTSAILEAN IZOTZ  
EGUN GUTXI;  
EGUN BAKARRA  
0 GRADU AZPITIK**

Imanol Fernandez andoaindarrak? 2022ko lehen eguneko tenperatura beroak eman dio arreta gehien Fernandezi: “24 gradu neurtu ziren, udako egun askotan izaten ez dugun tenperatura altua”. Lopez urrietarrak negua “normalizat” jotzen du, “bere berezitasunekin. Hasiera batean, lehorra izan dela pentsa genezake, baina kopuruak ez dira apalak izan. Egun gutxitan euri asko egin duela gertatu da”. Ildo beretik, Fernandezek aurreko urteetako datuak ekarri ditu gogora: “2002ko urtarrilean, 35 litro neurtu ziren, 2011n, 41 litro. 2015eko abenduan, 17 litro, eta, 2016an, 24 litro baino ez”.

Urtarrilean Andoainean 14 izotz egun izan ziren, eta Urnietan 10. Asko ote dira? “Dezente dira”, dio Fernandezek, “baina askoz negu hotzagoak izan ditugu gurean. 2017ko neguan, Leitzarango kanala izotzu egin zen, eta herriko zenbait iturri ere bai. Bukatu berri den neguan tenperatura hotzera -2 graduko izan da, ez da hotz ikaragarria”. Lopezentzat izotz egunek batez besteko tenperatura apaldu zuten urtarrilean: “Egun epel asko izan genituen, baina egoera antiziklonikoarekin, hotza ere egun askotan izan genuen. Horri esker hilabetea normala izan da tenperaturari dagokionez”.

Udaberria nolako izango den, edo hurrengo negua? Batek daki. Euskal Herrian ilbeltzean edo otsailean egiten ez duen hotza eta elurteak egiten ditu sarri martxoan eta apirilean, eta akaso iparreko erauntsiren bat etorriko da oraindik. Bestelakoan, Palentzia iparraldeko artzainek esaten zutenari kasu egin: “Al tiempo hay que dejarlo, no puedes cambiarlo”. Gaztelaniaz izanda ere, ulertzen da mezua.

## “Lauzpabost negu eskas egin ditu, baina ezin dugu aldaketa klimatikoaz mintzatu”

IKER IBARLUZEA METERELOGOEA

Antizikloi oso sendoak izan dira, negu honetan

Andoni Urbistondo URNIETA

Iker Ibarluzea twitter sare sozialeko fenomenoak bilakatu da azken urtean (Ibarra, 31 urte). Hamaika galdera erantzuten ditu eguraldiari buruz, eta joan berri zaigun negua nolako izan den ere aztertu du Aiurrirentzat.

**Nolakoa izan da negua, Iker?**

Elur zaleak garenok joera dugu negua elurraren baitan epaitzeko. Prisma horrekin aztertuta, negua gatzik gabekoa izan da, baina elurra ez diren beste parametroak aintzat hartuz, euria, tenperatura minimo eta maximoak, nahiko normala izan da. Elurrik gabe, baina normala. Euri asko egin zuen hasieran, eta mendietan elur asko, Gipuzkoa ipar ekialdean izan ezik. Antizikloiak muturra sartu zuen gurean dortsal moduan, eta horrek epeltasuna ekarri du. Minimoak oso hotzak izan ziren, dena den, eta izotz egun asko izan genituen. Horregatik apaldu da batez besteko tenperatura.

**Aditua zarenez, aspertu egin al zara?** Aspergarri samarra izan da, bai, ze egun askotan aldaketarik ez zegoen mapetan. Dagoeneko hiruzpalau negu daramatzagu jarraian tendentzia berarekin. Antizikloia gainean jartzen da, baina Azoreetakoa, ez kontinentala, hotza ekartzen duena. Azoreetakoa antizikloiak zirkulazio zonalak markatzen du, eta horrekin, negu epelak, gatz handirik gabekoak. Aintzat hartu behar



Iker Ibarluzea. TTAP

da antizikloiak oso sendoak izaten direla neguan, euren tokia hartzen dutenean ez dela erraza aldaketak egotea.

**Tendentziei buruz mintzatu zara. Negu zozo horiek ohikoak izan dira azken urtetan, ezta?**

Joerak ez dira harritzekoak izaten, boladaka behintzat. Horrek ez du esan nahi aurrerantzean ere aurten gertatu den gauza bera gertatuko denik. Agian hurrengo neguan 4-5 elurte botako ditu kalean, batek daki.

**Aldaketa klimatikoa denen ahotan al dabil. Funtsik ba al du eztabaidak?**

Ez. Serie klimatiko luzeagoak behar dira aldaketa klimatikoak eman direla esateko, 15-20 urte gutxienez. Azken hamarkadatan sei negu kaskar egin dituelako ezin da esan denak txarrak egingo dituela etorkizunean.



NIRE USTEZ

ANDONI AIZPURU ETBKO EGURALDI GIZONA

## Pello Zabalaren euskal neguak

Neguzale porrokatua naiz ni. Elurzale amorratua. Ez dut ezkututzen gainera. Gero eta gizarte “epelagoan” bizi garenez, hotz puxka batek, tarteka bada ere, ez baitigu batere kalterik egiten.

Aurtengo negua bihotzean iltzatuta geratu zait, ordea. Ez, jakina, izan dugun elurte mordoogatik. Nola ba! Pello, gure Pello, maisu eta laguna joan zaigulako, baizik. Euskal Herrian, jakinduriaren gordailu zen nerretzat, batez ere, Pello Zabala eta eguraldi kontuetan, erakusle eta irakasle aparta. Neguaren bihotzean izan zen, kandelario egunean, seinalatua oso neguko egutegian. Goizean izotzak errekonduak zurutu zituen egun hartan; arratsaldea, zeharo epela. “Kandelario bero, negua gero”, esango zuen Arantzazuko bere talaia paregabeketik. Eta, Ai Pello!!! nik erantzun. Esaera zaharrak zaharkituta geratzen ari dira! Hori lehen bai... orain, kiau, orain dena aldatuta dago. Elurzaleoi itxaropen izpi bat beti eman izan digu, dena dela, esaera zahar horrek. Geroko gero... hurrengo urtekoan, edo hurrengoan... Esperantza beti!

Eta Pellori berari ikasi nion nik negu meteorologikoa eta negu astronomikoa dauden bezala, “Euskal negua” ere badagoela. Alegia, hemen gurean, azaroaren lehen hasi eta maiatzaren 1a arte negutu dezakeela, tartean eguraldi epel askoak egin arren. Galdetu bestela Urbia, Aralar, Okabe edo Belaguako artzainei. Eskarmentua baino eskola hoberik ez dago ikasteko.

Bistan da: aurtengo negu-negua berezia izaten ari da oso, baina euskal neguak (eskerrak!) azaroko eta abendu hasierako euri-elurrekin, zeozer berdintzen ditu estatistikak. Ordukoak dira Pirinioetan geratzen diren elur multzo handienak, baina gainontzeko mendietan zulo sakonetan besterik ez da geratu elur zaharra pilatuta. Gabonetako giro epel-beroak aide-demonio lurmenduko zituen gure tontor apalak eta gero, tartekamarteka, elur lapatsa bota badu ere, bota bezain azkar urtu du itsasotik iritsitako aire beroak.

Abenduko tenpora-egunetarako etorria zen Azoreetako Antizikloi Ahalguztiduna Euskal Herrira opor tikiak pasatzera eta gero bera izan da jaun-da-jabe, hirutik bitan baino gehiagotan. Eta horrek, presio AAAltuak, zer ekarri ohi du? Negu-giro berezia! Ohi baino prezipitazio gutxiago eta izotz egun gehiago. Izotza sarri, behetan batez ere, goietan alderantzeka termikoa benetan esanguratsua izan baita. Eta hori elurzaleak garenontzat ez izan bene-benetako negu-giroa!

Martxo hasiera honetan zeozer nahastu du berriro eguraldia baina ustekabe handi samarra beharko luke hemendik aurrera orain arte izan ez dugun eguraldi makur eta hotza gailentzeko.

Eta orain dator zailena! Klima aldaketaren ondorio al da hau gogorrik ez al dugu izango? Nik, badaezpada, ez nuke leporik jokatuko (bakarra daukat eta!) Nire bizi eta lan-eskarmentuak dio gero eta elurte gutxiago izaten dugula; gero eta tenperatura epelagoa. Euri kopuruarena ez daukat hain garbi, baina alde haundirik ez da egongo Kantauri isurialdean behintzat epe luze samarra hartuz gero. Baina zalantzarik gabe datorkigun klima epeltze hori bertan daukagula baieztatzea ez zait gutziz zuzena iruditzen. Urteetako segidak aztertu beharko ditugu horretarako. Badator. Ziur. 25-50 urte barru nabarmen, baina oraindik ere, hurrengo neguetan, Adarra mendira igo eta elurretan hanka-zulo eder askoak egiteko aukera izango dugu, noizean behin. Izan esperantza! Bestela, adiskideak, larri ibili behar dute munduko beste bazter askotan!



**Aiurri eskuragarri:**  
Eteb eteko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetza:**  
Garbñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikiak:**  
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

**Aiurriko harpidedunak**  
ezinbestekoak dira.





Aitor Altuna, Uxue Amonarriz eta Uxue Bereziartua sortzaileak. AIURRI

# “Egunerokoan zeharkatzen gaituzten egoerak islatu ditugu”

**AITOR ALTUNA, UXUE AMONARRIZ ETA UXUE BEREZIARTUA ZEHAR KABLEA**  
“Belarri Bero, bai esan?” websaila proiektatuko da Saroben. Hilaren 13an izango da hitzordua, arratsaldeko 19:00tan, Poxta Zahar elkartearen eskutik

**Alba Cabrera Jauregi URNETA**  
Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak dei egin dio orain gutxi Zehar Kablea sormentaldearen linea erotikolari. Hala, Sarobe arte eszenikoen gunean proiektatuko da kolektiboaren lehen lana: “Belarri bero, bai esan?” webseriea.

Aitor Altunak, Uxue Amonarrizek eta Uxue Bereziartuak osatutako hirukote hernaniarra dago ikus-entzunezko egitasmoaren atzean: linea erotiko baten telefono-deiak amu, jendarteko makina bat afera mahai-

gaineratu dituzte, euskaraz, umoretik nahiz ikuspegi feminista batetik.

**Irakurri dizuedanez, “ideia ero” batetik abiatu omen zen orain webseriea den proiektua.**

**Uxue Bereziartua:** Ez gara ikus-entzunezkoetan aditu, ezta aritu ere. Beste hamaika saltsatan ibili izan gara elkarrekin, kuadrilla berekoak garelako eta elkarrekin bizi izan garelako. Hortaz, oso ongi ezagutzen dugu bakoitzaren erritmoa. Ideia txiki batekin etorri zen gugana behin Aitor eta haritik tiraka

hasi ginen proiektuari forma ematen, websail itxura hartzeraino.

Kasualitatez, Hernaniko Udalak sorkuntza-beka bat jarri zuen martxan arte plastikoak ez ziren gainerako diziplinei zuzenduta. Hala, aurkeztea erabaki genuen, baina azkar baino lehen iritsi zen pandemia gurea, eta, ondorioz, alde batera utzi behar izan genuen proiektua. Handik hilabete batzuetara, diru-laguntzaren bigarren saria gurea zela jakinarazi ziguten. Ezusteko atsegin hori aitzakia

gisa hartuta, proiektua berrabiatzea erabaki genuen.

**Uxue Amonarriz:** Ez genuen espero Aitorrek airera botatako ideia zoro hura webserie bihurtuko zenik. Izan ere, gure artean horrelako ideia asko ditugu, eta hau proposatzean, nik uste dut jendeak ez zuela uste gauzatuko genuenik. Baina bai, hementxe gaude.

**Telefono erotiko baten gorabeherak ditu hizpide lanak.**

**Aitor Altuna:** Telefono linea erotikoa da Belarri Bero, eta Axun da nagusia. Garai batean, arrakasta izan zuen, baina, egun, jada, ez du inork hots egiten. Bertan, hiru langile daude, Ines, Eider eta Garazi. Beren egunerokoan oinarritzen da kontaketa. Askotariko edukiak landu ditugu espazio komiko batean.

**U.A.:** Gainera, kontaketa ez da soilik telefono-deietara mugatzen. Alegia, pertsonaien eguneroko egoeretan ere mahaigaineratu ditugu zenbait eztabaida, sexualitateari lotutakoak, esaterako. Gugandik asko du webserieak, guztia ez esatearren! Gure irakurketatik sortutakoa da, finean.

**A.A.:** Hori da, egunerokoan zeharkatzen gaituzten egoerak islatu ditugu, eta, tartean, ingurukoekin hitz egitea apur bat kosta egiten zaigun horiei buruz mintzo gara, hain justu ere.

**Telefonoari hots egin eta “Belarri bero, bai esan?”. Nor aurkitzen da telefonoaren beste aldean?**

**U.A.:** Guztira, lau kidek osatzen dute linea erotikoa lantaldea. Axun da nagusia eta Olatz Beobidek gorpuztu du. Bestalde, Eiderren rolean ibili da Nerea Arriola, Dorleta Urretabizkaiak interpretatu du Inesen pertsonaia, eta, azkenik, Olaia Gil aritu da Garaziren azalean.

**Zuek zarete proiektuaren motorra. Alabaina, prozesuan izan duzue bidelagunik, ezta?**

**U.B.:** Guk sortu dugu hutsetik edukia, baina kanpo-iritziak ere beharrezkoak izan ditugu prozesuan. Hori horrela, hiru zutabetan banatzen dugu gure proiektua: lehenik, feminismoa dugu lanerako ardatz, finean, sexualitatea zein erotika jorra-

tzen diren websaila izanda, ez genuen betiko inertzia “zikinetan” erori nahi. Ondorioz, gidoia idazten, esaterako, askotariko ekarpenak izan ditugu eta hainbatek pisua dute kontakizunean. Bigarrenik, euskara ere badugu euskarri garrantzitsu; hizkuntza horretan sortu genuen, gu geu horrela bizi garelako. Hala, euskararen erabilera zuzena lehenetsi dugu, baina oso astuna izan gabe ere, jakina. Azkenik, alde teknikoari dagokionez, gidoiaren sorkuntza, grabaketan lanetan zein ondorengo edizioan ere babes handia izan dugu.

**Atal bakoitza egun bakarrean grabatu zenuten. Nolako esperientzia izan zen hura?**

**A.A.:** Lagundu diguten horien guztien artean, Martin Ugalde kultur parkeko kideak ziren batzuk. Horrela, beraiek utzi ziguten websaila grabatzeko espazioa. Gure etxeko trasteekin bete genuen gela txuri hura. Sei egunetan filmatu genituen sei atalak, egun bakoitzeko bana.

**Bizipen berria izan da hirurontzat, eta, batzuetan, oso gorabeheratsua:**

**A.A.:** 2019ean ekin genion egitasmoari eta iragan azaroan estreinatu genuen, alegia, denboratarte oso luzea hartu digu.

**U.B.:** Gainera, martxoan egin genuen grabaketa, lau emakumezko aktoreekin. Ikasi dugu (guri ere gertatu zaigu gerora websailarekin) martxoa ez dela horrelako proiektuen sorkuntzarako une egokiena, emakumeek presentzia duten lan esko programatzen direlako hilabete honetan. Ondorioz, zaila egin zitzaigun lantalde osoari ondo zetozkion sei grabaketa-egunak zehaztea. Hori gutxi balitz bezala, pandemia zegoen tarteko, nahiz eta, zorionez, ez genuen ezustekorik izan.

**U.A.:** Poza ematen digu horrenbeste hitzordu izatea orain. Baina ederragoa litzateke urte osoan horrelako gaiek martxoan besteko garrantzia izatea.

**A.A.:** Atzera begira ipinita, gauza asko aldatuko genituzke, baina oso ikasketa prozesu aberasgarria izan da eta pozik gaude emaitzarekin.

**“ASKOTARIKO EDUKIAK LANDU DITUGU ESPAZIO KOMIKO BATEAN”**

**“GURE IRAKURKETATIK SORTUTAKO PROIEKTUA DA BELARRI BERO”**

### Bada euskaraz gauza erotikoak esaterik? Erronka handia izan al da horrelako gaiez mintzatzea euskaraz eta umoretik?

**A.A.:** Hizkuntzari dagokionez, ez zaigu bereziki kostatu, ez zai-gulako bururatzeko beste modurik egiteko, hots, horrela ateratzen zaigu guri, euskaraz. Egia da joera handia dagoela umorea gaztelaniaz egiteko; beldurra ematen zigun horrek, apur bat artifiziala geldituko zelakoan. Baina gustura aritu ginen eta nahiko erraza egin zaigu azkenean.

**Azaroaren 6an estreinatu zenuten Hernanin, dotore-dotore jantzita, gainera. Harrera ona izan al du proiektuak?**

**A.A.:** Oso ingurune gozoan aurkeztu genuen, lagunez eta gertukoez inguratuta. Estreinaldiaren ostean, mezu pila jaso genituen, eta proiektioekin

### "GUK SORTU DUGU HUTSETIK, BAINA KANPO-IRITZIAK BEJARREZKOAK IZAN DIRA"

urtarrietik aurrera hasia erabaki genuen. Mutrikun eta Eibarren izan gara orain. Martxoari begira, emanaldi dexente ditugu.

**Tartean, Urnietan.**

**A.A.:** Hilaren 13an igande honetan bertan igaroko gara Sarobetik, arratsalderako 19:00tan. Bibe plataforman eta Saroben bertan eskuratu daitezke sarrerak. Jarrera, Zestoan izango gara 17an, Villabonan 24an eta Arrasaten 25ean. Apirilean ere baditugu zenbait hitzordu.

**Lehen aldiz hots egin du telefono erotikoak. Bigarren aldiz egingo al du? Ba al daukazue beste "ideia erorik" esku artean?**

**U.A.:** Oraingoan, ez dugu aurreikusen. Gainera, nor bere bizitza du, ez gara honetatik bizi. Ondorioz, ez da hain erraza guztiok elkartzea, eta, ostera, denbora eskatzen dute horrelako proiektuek. Beraz, oraingoan honi eutsiko diogu soilik.

**U.B.:** Proiektuaren zabalpena sorkuntza-prozesuaren parte da. Horrenbestez, oraindik ez dugu bukatutzat ematen bidea, web-saila euskarri digitaletan zintzilikatu arte.



Sei egunetan egin zuten proiektu osoaren grabaketa. ©ZEHAR KABLEA

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.



## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

## Hurria-Sahara elkartearen izenean, eskerrik asko

Lerro hauen bidez, Hurria Sahara elkarteak zuzenean eskertu nahi du elikagai bilketan herritarrengandik jasotako elkartasuna eta martxoaren 27an antolatu den bertso saioaren berri eman nahi du. 46 urtez, Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu eta gero, gatazka konpondu gabe dago oraindik: su etena 2020ko urrian hautsi zen, Nazio Batuen misioak ez du lurralde okupatuetako giza eskubideen urraketak aztertu eta gerazteko ekimenik abiatzen, Ildagi Erdi Gorria erakundeak jakinarazi du anemia eta desnutrizio kasuak handitu direla errefuxiatu kanpamentuetan...

Otsailaren 24an, Saharako Errepublikan aldarrikatu zen urteurrenari begira, Udaleko alderdi guztien artean Euskal Fondon erakundearen adierazpen instituzionala irakurri eta Saharako bandera udaletxeko balkoian zintzilikatu zen; adierazpenaren bidez, Saharako errefuxiatu-kanpalekuetan bizi den egoera humanitario larriaren aurrean, lankidetzeta eta laguntza humanitarioa areagotzea eskatu zen, egiaztatu baita Espainiako Lankidetzeta Agentzia eta beste erakundeek ekarpenak murriztu egin direla.

Adierazpen instituzionalean nabarmentzen da ere Europar Batasuneko Auzitegi Nagusiak 2021ean berretsi duela Marokorekin Europak egindako akordio ekonomikoak ezin direla hedatu Mendebaldeko Saharara, baina, aldi berean, ebazpen hau saiesteko trikimaluak bilatzen saiatzen dira Europako hainbat gobernuak. Fosfatoei edo arrantzari eragiten dieten aferez gain, berriki jakin da Marokok tomate ekologikoa ekoizteko aitzakiarekin lurralde okupatuetako langabezia eragin ordez marokoko kolonoen presentzia indartu duela.

Horregatik guztiagatik, saharaiuen irmotasuna, euskal herritarren eskuzabaltasuna eta gure erakundeek konpromezua dira gatazka konpontzeko tresna nagusiak.

Azken janari bilketan Andoainen ia 8000 kilo elikagai jaso dira, 40 kilo konpresa eta sendagaiak zein kirol materiala ere bidali da. Eskerrak eman nahi dizkiegu andoaindarrei, farmaziei eta, aurtan, bereziki, Euskalduna Futbol Taldeari. Alacanten itsasoratu da jada errefuxiatu kanpamentuetara iritsiko den elkartasunezko euskal karabana.

### Bertso saioa Basteron

Martxoaren 27an Basteroko Areto Nagusian urteroko bertso saioa antolatuko da Puntuka Eskolarekin lankidetzan. Bertan bertsolari hauek parte hartuko dute: Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Alaña Martin, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia.

Azkenik, jakinarazi nahi dugu, bi urteko etenaldiaren ondoren, 'Oporrak Bakean' proiektua, haur saharaiak uda Euskal Herrian igarotzeko helburu duena, berriro martxan abiatuko dela. Egonaldi hauei esker, haurrek desertuko tenperatura gogorak saiestu eta osasun-azterketa zehatzagoak egin ahal izango dituzte. Proiektu honetan parte hartzeko familia interesaturik balego, Udalarekin harremanetan jar daiteke.

Munduak bizi dituen pandemia eta gerra egoera anitzek sortutako etsipenaren zurrunbiloan ezin dugu ahantzi saharar herriaren ondoan egon behar garela, 46 urtez luzatzen ari den injustiziarekin amaitzeko bidean herritarren elkartasuna zabalduz.

Mila esker zuen laguntzagatik.

## POSTONTZIA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

## Ondarretako ikastetxean agertutako aparkalekuei buruz

Ondarretako ikastetxeko hezkuntza komunitatearen parte naiz, guraso gisa, nire seme nagusiak eskola garaia hasi zuenetik, 2015ean. 7 urte hauetan gauza asko bizi izan ditugu, baina, batez ere, ni, behintzat, abandonatuta sentitu naiz orain arte egon diren udal korporazio desberdinengandik (gogoratu behar da Ondarretako Ikastetxea Andoaingo ikastetxe publiko bakarra dela, Euskal Eskola Publikoen sarean integratua).

Otsailaren 24an, ostegun gizona, utzikeria horrek goia jo zuen, Udalak ikastetxeko sarrera aparkaleku gisa gaitzeko leku aproposa zela erabaki zuela ikusi genuenean. Eta ikusi genuela diot, Udal langileak Haur Hezkuntzako eraikinaren sarreran aparkalekuak margotzen aurkitu genituelako, alde aurretik eskolari jakinarazi gabe.

Haur Hezkuntzako eraikinaren sarrera autobusak eskolara ekartzen zituen haurrak bertan sartzeko pentsatua zegoen. Sarrera horrek gatazka sortu izan ditu nire semea eskolara joaten denetik, behintzat, aparkatzeko debekua adierazten duten seinale

bertikalak eta lurtean marra hori batzuk margotuta egon arren, ez baitzen errespetatzen. Hori dela eta, baimendu gabeko ibilgailurik igarotzea galaraziko zuen pibote bat jartzea eskatu zitzaion Udalari.

Utzikeria eta mespretxua, Udalari proposatutako konponbidearen ordez, alderantzizko apustua egin zuten, ez dugu ibilgailuen sarrera debekatuko, baizik eta berau sustatuko dugu, esan nahi duela dirudi udal korporazioak.

Gogorarazi nahi dut haur hezkuntzako eskola baten sarreraz ari garela, 2 eta 6 urte bitarteko haurrak joaten direla eskola honetara, herriak lau (cuatro, four, quatre) aparkaleku irabazteko udalak berauen segurtasuna arriskuan jartzea merezi duela deritzaiolarik.

Hurrengo udal hauteskundeetan ustiatzen jakingo duten lorpen handia.

**ATARIRA IBILGAILUEN SARRERA DEBEKATU BEHARREAN, UDALAK SARBIDEA SUSTATU DU**



IRITZIA

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

## Bizitzak bizigarri izan daitezzen

Antiguoko tuneletik ekin zion bideari manifestazioak martxoaren 8an, aho batez: "Gora borroka feminista!". Eta hiriburuko kale kantoietan egin zuten topo aldarri feministek. Jendez bete ziren etorbideak, atariak, bide-gurutzeak eta txoko txikiak, Bulebarrera ailegatu bitartean. "Zapaltzen gaituen sistemari sua. Antolakuntza feminista gure garra", zioen lehen lerroko pankartak. Eta, haren atzetik, hamaika su txiki.

Argazki ederra utzi zuten orain bi urteko manifestazioek, indar kolektibo baten erakusle. Alabaina, inork gutxik aurreikusi ezin izan zuen pandemia medio, etenaldia egon zen gizartean eta bakoitzak bere (edo ahal zuen) kobazulotik egin zuen orro. Zamak utzi ditu osasun-larrialdiak, baina, era berean, are modu ageriagoan azaleratu dira zirrikituak eta gabeziak. Horiei guztiei eman zitzaizen atzo su. Altxa zuzia!

Askotariko eragileek antolatutako baterajotzea izan zen atzo Donostian, zaintza erdigunera ekartzeko. "Bizitzari eusteko erantzukizun kolektiboa eskatzen dugu, zainketen antolaketa soziala zeharkakoa izan dadin politika publikoetan, eta emakumeen gain eror ez dadin".

Negoziaroko aitzakia izatetik urruti, eskubidea dela ekarri zuten gogora manifestazio amaierako irakurketan: "Zaintza-sistemak, ehuneko ehunean, publikoa izan behar du, ordaindutako zaintza-lanen ikuskaritza bermatu behar da eta lan-baldintzen kontrol zorrotzak ezarri. Gizonek zaintzarekiko erantzukizunak eta ardurak har ditzatela orain!", zioten txalo eta txistu artean. Zaintza lanen zein horretan diharduten kideen erregularizazioa bermatzea eskatu zuten, besteak beste, atzeritarasun legearen amaierarekin. Etxeko lanari

ere aitortza egin zitzaion manifestazio bukaeran, lan erregimen orokorraren barruan sartzeko eskatuz. Horregatik, eragileek babes osoa adierazi zieten Gipuzkoako zaharren egoitzetan borrokan dabilzan emakume guztiei, administrazio publikoari dagozkion ardurak hartzeko exijitzaekin batera.

Bizitzak erdigunera ekartzeko ahaleginetan, erakunde politikoek izandako jarrera entzungorra salatu zuten, eta horren adibide da hiriburuko Emakumeen Etxea, zeinak hamaika urte daramatzen behin-behineko egoeran: "Etegabe, bazterrera bideratzen gaituzte egungo sistema sostengatzeko ezartzen dituzten politika neoliberalak; indibidualismoa sustatzen dute komunitatearen kalterako". Horregatik guztiagatik, antolatzen jarraitzeko beharra adierazi zuten, "feminismoetatik bizitzak bizigarriago diren mundu bat eraikitzeko". Hain justu ere, txikitik eragiteko deia egin zuten, sistema iraultzeko.

Jendartearen ertzeetan dauden kideek hartu zituzten atzo Euskal Herriko kaleak eta plazak, herri txikienetik hasi eta hirigune jendeztatuetara bitarte. Nor bere izatetik, nor bere bizipenetik, garretik. Barreneko su-minak askatzeko, sareak ehuntzeko eta errenka dabilen sistema baten zimenduak, "paradisua" kiskaltzeko. "Batzena dena eta batzuentzat soilik eraikia".

Atzoko indar-hartzearen berotan, aje emozionalarekin bezain indartuta esnatuko dira gaur ziurrenik asko eta asko. Bada, izan bedi borrokarako grina atzokoan (eta martxoan) horrenbesteko indartsu urteko gainerako egunetan ere. Jarrai dezagun deserosoak izaten, kontraesanak iraultzen, arnaguneak sortzen. Elkar ureztatu gaitezten, sugarrak iraun dezan.

## Martxoaren 8ko hitzordua

Udalak Eudelekin adostu duen adierazpena irakurri zuten. Udalak berdintasunaren aldeko konpromisoak berriro ditu, eta datozen egunetan egingo diren ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatu zien herrikideei. San Juan plazan hainbat lagun elkarretaratzearekin bat egiteko.



AIURRI



Goñi eta . AIURRI

## Jabekuntza eskolan izena emateko epea zabalik dago

Alor ezberdinetako profesionalak bideratuko dituzte Berdintasun sailak antolatutako ikastaroak

Erredakzioa URNIETA


Urnietako Udalak Jabekuntza Eskolaren udaberriko programazioa jarriko du abian, "emakumeen ahalduntze-prozesuak bultzatzen jarraitzeko asmoz". Besteak beste, maitasun erromantikoaren deseraikuntza eta harreman sozio-afektiboen kudeaketa izango dira hizpide. Horretarako, askotariko profesionalak izango dira bidelagun: Pepa Bojo, Espazio Lunarra, Amher eta Emagin. Tailer orokorretarako izen-emateak martxoaren 11n amaituko dira. Bi modutan eskura daitezke. Urnieta.eus bidez edo Bertan eta Gazte Informazio Puntuan.

## Hurrengo hitzorduak Urnietan



Eliás, Olaizola eta Gaztañaga aktoreak. KAMIKAZ

**Antzerkia** "Hiru kortse, azukre asko eta bandy gehiegi" fikzioaren eta errealitatearen arteko joan-etorrian saltoka, egunerokoan gertatzen denaren ispilu izan nahi dute, umoretsu bezain kritiko. **Martxoak 11, ostirala. 19:00, Sarobe. Euskara.**



Irati Gonzalez Jaimerena eta Koldo Arakistain Irazusta. AIURRI

**Zirko emanaldia** Botere harremanak ikusarazteko, zirku disziplina akrobatikoak lengoia gisan baliatzen dituen antzerki pieza da Mikra. **Martxoak 27, igandea. 17:30, Sarobe. Euskaraz.**





Adin guztietako herrikideak elkartu ziren manifestazioan, gehien-gehienak, emakumezkoak. AIURRI

## Olatu morea Andoaingo kaleetan barrena

Ehundik gora andoaindar elkartu ziren Goikoplazan Zumearako bidean, Andoaingo Asanblada Feministak deituta. Kolore moreak kaleak hartu zituen, berdintasuna aldarrikatu eta borrokarako grina erakusteko

### Mikel Arberas ANDOAIN

Gutxinaka, herritarrak Goikoplazara gerturatzen hasi ziren, kolore morea nagusi eta banderolak eskuetan. 18:30ak pasatxo hasi zen kale-agerraldia “gora borroka feminista” oihu artean. Segituan hasi zuen eguraldi txarra, baina horrek ez zuen eraginik eduki gogo biziz aldarri feministak oihukatzen zituzten emakumeen artean. 2022. urtean egonda ere, jendarte heteropatriarkalak emakumeak zapaltzen dituztela azpimarratu eta emakumeengan kalteak sortzen dituen sistema suntsitzeko beharra azaleratu zuten: “Egunero zapaltzen, erasotzen eta erailtzen gaituen sistema heteropatriarkal, kapitalista, arrazista, kapazitista hau kiskali behar dugu. Jendartearen zati handienarentzat, eta bereziki emakumeontzat zein sexu-genero disidenteontzat kriminala eta jasanezina den eredu honekin bukatu behar dugu”, adierazi zuen Asanblada Feministako ordezkariak.



Euri jasa baten azpian igaro zen manifestazioaren zatirik handiena. AIURRI

Esanak esan, emakumeen batasuna ezinbestekoa dela aipatu zuten. Horrez gain, Emakumeen Nazioarteko Egunean bandera morea altxatzen den bezala, egunerokotasunean borrokatzea nahitaezkoa dela gaineratu zuten: “Elkarrekin, indartsu eta batuta egon behar gara azkenaldian gora egiten ari diren diskurtso faxistei, misoginoei, homofoboiei eta sexistei su eman

eta adi eta ozen adierazteko aurrean izango gaituztela eta ez direla pasako”. Amaieran aho batez eta ozen: “Lagunak, ahizpak, kideak, amak, amonak, auzokideak jar gaitzen martxan! Ez gaitezen egun solte honetan geratu! Antolatu gaitezen dena aldatu eta kaleak betetzen jarraitzeko, denak aske izan arte!” aldarria bota eta txalo zaparrada artean amaitu zen ekitaldia.

### Lehen ekitaldi-sorta Andoainen



Liburu mardularen eta erakusketaren egileak Basteron izan ziren. AIURRI

**Erakusketa** Apirilaren 1a bitarte, erakusketa oso interesgarria zabalik dago Basteroko erakusketa-gelan. Igone Mariezkurrena kazetariak eta Irantzu Pastor argazkilariek lekukotza ugari jaso dituzte, munduan barrena.



Dudik P musika taldea, Andoaingo Gaztetxean. AIURRI

**Kontzertua** Larunbat iluntzean Dudik-P musika taldeak kontzertua eskaini zuten Andoaingo Gaztetxean, Trakak eta Andoaingo mugimendu feministak antolatuta. Egun batzuk lehenago transfeminismoari buruzko hitzaldia antolatu zuten.



Udal ordezkariak adierazpen bateratua irakurri zuten. AIURRI

**Udal adierazpena** Adierazpen bateratua irakurri zuten, martxoaren 8an aldarrikatzen denarekin bat datozela adieraziz. Maider Lainez alkateak eta Txitxu Ruiz, Petri Romero, Tere Santana eta Garazi Usandizaga zinegotziek irakurri zuten adierazpena.





Dantza saioa, larunbatean. AIURRI

## Plaza Morea izendapen-festa, ekitaldi koloretsuan

Plaza Morea, andreurdinarena izendapenarekin, martxoaren 8ko dinamika berritzeko nahia agertu zen

### Mikel Arberas ANDOAIN

Jone Larrañagak irakurri zuen adierazpenean, Andoaingo dinamikan egon den eraldaketa azaldu zuen. Dozenaka emakume txalotu dituen "Pausoz pauso" ekimenari agur esan baitio, eta etorkizunak ekar lezakeena plazaren barnean egingo baita: "Iaz, ziklo bat itxi genuen. Kolorezko ariketa indartsu baten zikloa ixten dugu. Esanahiaren ariketa kolektibo eta osoa. Plaza baten izena aldatzeak beste ziklo baten hasiera izan behar du, indartsua, kolorez bete eta, batez ere, kolektiboa".

### "Auzolanik gabe ez da izango plaza more"

Talde lana, kolektiboa, erakundeak eta gizarte eragileak batu dituen. Horixe da etorkizunerako behar-beharrezkoa dena. Plazatik emakumeen lana aitortzen jarrai dezagun: "Kalean aldarrikatu ditugu, plazetan, eta gaurtik aurrera, plaza honetatik ere aldarrikatu behar ditugu. Plaza more honetatik. Kolore eta adin guztietakoak. Kolore, adin eta pentsaera guztietakoak. Denen artean". Plazak berak zentzua izan dezan: "Auzorik gabe ez baitago plazarik. Eta auzolanik gabe hau ez baita izango plaza more".

## Goiz osoko ekitaldia



Jone Larrañaga kazetaria, ekitaldiko aurkezlea. AIURRI

**Plazak hartzeko deia** "Plaza honetara heltzeko egin behar den ibilbidea da garrantzitsua. Asfaltokoz eta harrizko plaza hau ez ezik, gizarteko plaza guztiak ere hartzeko".



Petri Romero, Andoaingo Udaleko Berdintasun saileko zinegotzia. AIURRI

**Desberdintasunak kale izendegian** "Historian emakumeen rola bigarren mailakoa izan da beti. Kaleetako izenen artean, sexuen arteko aldeak, desberdintasunaren beste isla bat da".



Azken protagonistak herritarrek izan ziren. AIURRI

**Ekitaldi koloretsua** Musika, dantza, bertsoa... Ez zen osagairik falta larunbat eguerdian. Eguraldiagatik Bastero plazaren izendapen-festa ondo-ondoan egin zuten, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian hain zuzen.



Jone Aldaz, biktimen aldeko ekitaldian, aitonaren argazkia erreparatzen. AIURRI

## Jone Aldaz Gonzalo herrikidea asteartean hil zen, 66 urte zituela

Frankismoko biktimen aldeko ekimen guztietan modu aktiboan parte hartu izan zuen

### Xabier Lasa ANDOAIN

Kultur-zale eta kultur-jale amorratua izaki, maiz-maiz ikusi ahal izan dugu Andoaingen burutu izan diren edozein ekimenetan, beti alai, irribarrea ezpainenatik, nekez galdurik, eta gozaten. Andoaingen, kostata topatuko dugu Basteroko auditorioa, hitzaldi gela edo erakusketa gela Jonek bezainbatetan zapaldu duen herritarrik. Zinea, antzerkia, musika, opera... Zer ez zuen irentsi emakume honek!

Jone Aldazen familia asko sufritutakoa zen frankismoan, eta, besteak beste, haren oroimena aldarrikatzeagatik ere nabarmendu izan zen emakumea. Izan ere, bere aitona, Faustino Aldaz, Donostian erail zuten 1936ko urrian, Ondarretako kartzelaldia eta epaiketa fartsa jasan ostean. Mikaela Aldaz, izeba, epaiketa berean epaitu zuten; hamar urteko kartzela zigorra

ezarri zioten, eta Saturrarango kartzelara bidali zuten. Aita, berriz, Errepublikaren defentsan Bizkaiko frontean jardun zuela-eta, langile batailoieta esklabu gisa jardun behar izan zuen.

Era horretan, Jone Aldazek frankismoko biktimen aldeko ekimen guztietan modu aktiboan parte hartu izan zuen, Banda Errepublikanoarekin kantuan nahiz biktimen aldeko omenaldi eta lore eskaintzetan. Bestalde, Oroituz elkarteak bultzatuta, eta, Udalaren babesarekin, Andoaingo herriak frankismoaren krimenen aurkako Argentinako kereilarekin bat egin zuenean 2017an, kausa horretan pertsonatu zen biktimetako bat izan zen Jone Aldaz.

Kalean edonori diosala egiteko orduan, Jonek berak erabiltzen zuen formularekin agurtzea baino, zer egokiagoa: Agur Biho-tza!



**andoaINDARRA**  
euskaraz





Euskaltzale asko elkartu zen Urnietan, larunbat eguerdian. AIURRI

## Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldia

Hilabete eskas barru, Korrika eskualdean barrena igaroko da, eta, pixkanaka, hitzordu handi hori gizarteratzeko ekimenak egiten ari dira. Urnietan, AEK-k eta batzordeak antolatuta, eragile eta herrikide ugari elkartu zituzten

**Xabier Lasa** URNIETA

Lagun askoren partaidetzari esker, aurreko larunbatekoa goiz pasa borobila izan zen. Egape dantza taldea, Egapexou antzerki taldea, Etxeberri plaza-koak, Kantazaun taldekoak,

Kristina Solanoren esanetara aritu ziren trikitilari eta panderojoleak... Partaidetza handia lortu zuten Korrikako kideek. Ekitaldiari amaiera eman aurretik, AEK-ko kideek eskertza adieraztearekin batera, Lete-

Iriondo gogoan hartu nahi izan zuten. Senideei lore-sorta bat eman zieten, eta, haien izenean, Joxe Mari Berasategik gogoan hartu zuen izeba-osabak euskararen alde egindako lana. Hurrengo hitzordua, apirilaren 8an.

### Urnietar askoren laguntzari esker



Trikitilariak eta panderojoleak Kristina Solanorekin irten ziren. AIURRI

**Musika** Egape ikastolako jolastoki estalia musikarako toki aproposena izan ez arren, musikari gazte eta helduak gogotsu hurbildu ziren Korrika festara.



Antzele gazteak, Berasategiren esanetara. AIURRI

**Antzerkia** Egapexou antzerki taldeak "Korrikatxiporreta puntukom xoua" ikuskizuna eskaini zuen, aurtengoan omenaldi berezia jasoko duten Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei keinua eginez.



Aurreko edizioetan egin bezala, Egape dantza taldeko gazteek Korrikako kanta koreografia ikusgarriarekin aberastu zuten. AIURRI





Asteazken eguerdiko agerraldia, Goikoplazan. AIURRI

## Babesa adierazteko ekitaldi bana Andoainen eta Urnietan

Asteazken eguerdian hainbat herrikide elkartu zen udaletxearen aurrean, Udalak eta Eudelek deituta

### Erredakzioa ANDOAIN

Astelehenean, Udalak hedabideetara adierazpen instituzionala igorri zuen. Adostutakoa:

- Nazioarteko zuzenbidean, Ukrainak nazio burujabetasunerako eta lurralde osotasunerako duen eskubidea bortxatu izanari gure gaitzespenik tinkoena adierazten diogu.
- Ukrainako gatazka militarrean parte hartzen duten estatu guztiei, zuzenekoei zein zeharkakoei, eskatzen diegu manio-bra eta operazio militarrek berehala eteteko.
- Gatazkan atzera egitea eta bide diplomatikoetara itzultzea eskatzen dugu, bakea lehenbailehen berrezartzeko eta saihesteko ondorio suntsitzaile gehiago.
- Ukrainan bizi den guztizko egoera larriak Europako estatu guztien aldetik kaltetuen-tzako laguntzak bideratzea

eskatzen duenez, hitz ematen dugu iheslari ukrainarrei laguntza, harrera eta babesa eskaintzeko Andoainen.

- Batzordeari, Kontseilu Europarrari eta bertako estatu-kideei eskatzen diegu beharrezko ekintzak egin ditzatela Ukrainako herriari bakea, ongizatea eta kaltetuentzako laguntza berrezartzen zaizkiola bermatzeko.
- Elkartasuna eta babesa adierazten diegu gerra hau lehen lerroan pairatzen duten pertsoneri, bai eta Andoainen bizi diren ukrainar jatorriko bizilagunei eta haien familiei ere.
- Balore demokratikoekin dugun konpromisoa, bakearekin, nazioarteko legezketasunarekiko begirunearekin, giza eskubideekin eta Ukrainako herriarekiko kaltetuen elkartasun eta lankidetzarekin duguna irmo berresten dugu.



Bilketa lana, Eroskin. UZQUIANO

## Laguntza emateko eskaerari erantzuna

La Palmarekin elkartasunez osatutako taldeak bideratu du Ukrainarako laguntza

### Erredakzioa ANDOAIN

Iazko irailean, La Palma irlako sumendia piztu zenean, andoaindar taldea elkartasuna bideratzeko elkartu zen. Aurreko astean, berritako elkartzeari erabaki zuten, Ukrainan bizitzen ari diren egoerarekin kezkatuta. Aurreko astean, hiru egunez, botikak, mantak, berokiak eta elikagaiak jaso zituzten. Antolatzaileen esanetan, erantzuna bikaina izan da: "Ez dugu hitzik sentitzen dugun guttia adierazteko. Eskerrik asko guztioi, emandako laguntzagatik". Ucraina-Euskadi elkartera helarazi dute bildutakoa, haiek arduratuko baitira Ukrainara bidaltzeaz.



Dihanna Petrechenko, ezkerretik bigarrena. ESTEBEZ-GARCIA FAMILIA

## Dihanna Petrechenko Andoainen da, Ukrainako Irpin hiria utzita

Errusiar armadak txikitutako eremua da Irpin. Dihannak eta bere haur txikiak bertatik irtetea lortu dute

### Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko Aiurri astekariko protagonistakoa izan zen, baina, dagoeneko, gudu-zelai bilakatu den Irpin sorterrria utzi eta Andoainen da Dihanna Petrechenko ukrainar gaztea.

Chernobyleko eztanda nuklearraren ondorioz, Ukrainako eta Euskal Herriko hainbat familien arteko loturak egonkortu egin dira. Lurralde hartako haur zirenek bigarren familia topatu zuten gure lurretan. Andoainen, esaterako. Asun Garcia eta Javier Estevez andoaindarrek bere garaian 6 urteko neskatua ekarri zuten Euskal Herrira. Dihanna izenekoa, harreman estua egin zuten eta ukrainar gaztearentzat Andoaingoa bere bigarren familia da. Haur horrek 25 urte ditu orain, eta egoera oso zaila bizi zuen sorterrian. Ukrainak Errusiaren eraso bortitza jasan du, eta bertan jarraitzea ezinez-

koa zen. Hango leherketen eta erasoen berri eman zuen gazteak, eta Aiurri.eus webgunean bere lekukotza zabaldu zen. Irpin hiriak, bereziki, bonbardaketa ugari jaso ditu eta bertako erai-kin ugari txikituta daude. Are gehiago, hainbat hedabideek zabaldu dituzten irudien arabera, errusiar armadak zibilen aurka jo du. Aurreko astean, Dihannak Irpinetik irteten eta bere desioa bete ahal izan zuen: Andoainera itzultzea, bere bigarren etxera itzultzea. Haur txikiarekin bake pixka bat izango duen bizitokia bilakatu da Andoain. Dagoeneko, gazteak sare sozialen bitartez hainbat mezu zabaldu ditu Andoaindik. Urrunetik bada ere, gertutik jarraituko du Ukrainako egoera. Dihannak badu ahizpa bat, eta hura Malagan bizi da. Biak ala biak seguru daude. Bestelako kontua izango da gainerako senideen egoera.



Asteazken eguerdiko agerraldia, San Juan plazan. AIURRI

## Larunbata bitarte laguntza eskaini dezakete urnietarrek

Yurramendi kaleko 2. zenbakian parrokiak duen bulegora eraman daitezke elikagaiak eta arropa

### Erredakzioa URNIETA

Ukraina-Euskadi elkartetik Ukrainarako laguntza eskatzen ari dira, eta urnietar talde batek ekimenarekin bat egin du. Produktu-sorta zabala eskatzen ari dira. Nagusiki, honako hauexek:

- Latak, barra-energetikoak, erraz irauzko ez diren elikagaiak...
- Pardelak.
- Arropa termikoa, neguko arropa, eskularruak, galtzerdi termikoak, lotarako zakuak.

- Termo botilak, su txikiak, poxpoloak, kandelak, linternak, pilak...
- Esterilizatutako materiala: Bendak, gasak, kirurgia-batak.
- Musuko kirurgikoak, arnasketa-babesteko musukoak
- Paketeak egiteko kutxak.

### Ordutegia

Osteguna- ostirala:  
09:00-13:00 / 16:30-19:30.  
Larunbata:  
11:00-13:00.  
Informazioa: 666 782 485.



# Irteera, elurraz gozatzera

**ESKIA** Aurreko asteburuan, Zanpatuz mendi-elkarteko urnietarrek irteera antolatu zuten Luz Ardidenera. Elurraz gozatzeko aukera izan zuten, eskiak nahiz snowboard taula erabilia. Goizean goiz irten eta iluntzerako Urnietan ziren berriro



Irteeran parte hartu zuten hainbat kide, taldeko argazkian. ZANPATUZ

**Erredakzioa** URNIETA 43 lagun irten ziren Urnietatik, larunbatean, goizaldeko 06:15tan. Saint-Sauveurren geldialdia egin zuten eguna igarotzeko eskiak alokatzeko, eta goizeko 10:00tan Luz Ardideneko pistatan eskia-tzen ari ziren. Arratsaldeko 15:30ak arte gozatzeko aukera izan zuten urnietarrek. Elurra

egin berria zegoen, eta, egunak aurrera egin ahala, behelainoa sartu zen. Antolatzaileen ahotan, "egun zoragarria igaro genuen, gurekin etorri zirenak pozik itzuli ziren Luz Ardiden aldetik". Eguna goiz hasi arren, bidaiarien erdiak sagardotegira joanez luzatu zuen larunbata. Zanpatuzen irteera, beraz, bikaina izan zen.



ZANPATUZ



AIURRI

## Andoaingo eskolakoak, nagusi

**TXIRRINDULARITZA** Usurbe proban, Beasaingo errepideetan barrena, Irati Aranguren lehen postuan helmugaratu zen, eta, haren atzetik, Intza Navarro taldekidea. Zalantzarik gabe, Andoaingo eskolarentzat proba bikain amaitu zen.

## Kadeteak Kopan, bikain

**FUTBOLA** 1. Kadete mutilen mailan, Euskalduna 5. multzoan jokatzen ari da, eta, aurreko asteburuan, Ubitarte zelaian Ordiziaren aurka garaipena eskuratu zuen. Tolosa dago lehen postuan 14 punturekin eta Euskalduna eta Ordizia 12 punturekin daude, 2. eta 3. postuetan, hurrenez hurren. Euskaldunak partida bat gutxiago jokatu du.



EUSKALDUNA



ANDOAINGO

## Andoaingo Txirrindulari Eskolaren denboraldi hasierako argazkia

**TXIRRINDULARITZA** Aurreko lerroa: Denis Ariznabarreta, Unax Urizar, Unax Guisado, Ugaitz Tejeria, Liher Albizu, Lizar Zuriarrain, Eneko Ugartemendia, Kerman Etxeberria, Maddi Ormazabal, Olaia Gayoso, Urko Zelaia. Atzeko lerroa: Izaro Zuriarrain, Izaro Etxarri, Irati Aranguren, Itziar Alkain, Intza Navarro, Peru Sarasola, Iker Ugartemendia, Markel Etxarri, Ekhi

Arrieta, Markel Tamayo, Iker Atxaga, Oihan Mitxelena, Ganix Ormazabal eta Xabat Zuriarrain. Entrenatzaileak ezkerretik eskuinera: Pedro de Godos, Patxi Altuna, Arene Etxarri, Luis Beneitez, Unai Galarza, Xabi Perez, Iñaki Arin, Jose Sanchez, Aitzol Zuriarrain, Josu Iraola, Jon Mikel Mujika, Jose Luis Barberena eta Aitor Amutxastegi.





AIURRI

## Andoingo eskolakoak, nagusi

**ZESTA** Gazteleku pilota elkarteko Irati Moreno zestan murgiltzen ari da. Larunbat honetan Berriatuako pilotalekuan ariko da, hirugarren mailako lehiaketan. Orain arte, nagusiki, gizonezkoen jarduera izan da. Urrats berria, beraz, emakumeentzat. Zorte on Irati Morenori!



UKE

## Teknifikazio saioak

**FUTBOLA** Martxoaren 7an hasi eta 14ra bitarte UKEko infantil mailako Leire Atxaga eta Naroa Exposito jokalariek Real Sociedad taldeko teknifikazio saioetan parte hartzen ari dira. Argazkian, Antxe Sagastiberri eta Iker Revuelta entrenatzaileekin eta Aitor Revuelta UKEko kidearekin batera ageri dira.

## Igeriketa saioa Allurralden

**IGERIKETA** Gaztetxoek etengabeko ikaskuntzan jarraitzen dute.

Andoainen bada harrobia: Oihan Matute, Ane Meyer, Laida Guerrero, Asier Barcena... Allurralden ospatu zen bosgarren jardunaldiarekin eta beste bi jardunaldiren faltan, Udako Gipuzkoako Txapelketa zein Udako Euskal Herriko Txapelketa izango dira alebin mailako hurrengo probak. Alebin mailan gozaten ari dira gure igerilariak.



BURUNTZALDEA IKT



Rekalde eta Altuna, Ogetan. GAZTELEKU

## Altuna eta Rekalde, Euskal Herriko txapeldunak

**PALA** Ezker paretako klubun arteko txapelketa irabazi zuten, Gasteizko Ogetan jokatu zen finalean

**Mikel Arberas** ANDOAIN

Altunak eta Rekaldek Euskal Herriko Ezker Paretako Klubun Arteko txapelketa irabazi zuten Vega-Arroita bikotearen aurka (40-32). Norvehiagoka Gasteizko Ogeta pilotaleku mitikoan jokatu zen.

Txapelketa bereziki gogorra izan da, zeren eta zenbait lesio gainditu behar izan dituzte finala jokatu baino lehen. Andoaindarrek maila altua erakutsi zuten lehen minututik; hala ere, edonork irabaz zezakeen partida, oso parekatua izan zen. Aritz Rekalde: "Min handia egin digute beren pelotarekin. Gainera, Vega aurrelaria oso pilotari teknikoa da. Memento batean, alde handia atera digute, baina markagailua iraultzen jakin dugu". Bestalde, aukera zutenean andoaindarrek beren pelotak erabiltzeari ekin zioten, pisu handikoak eta mugitzeko zailagoak; erabaki horrekin asmatu egin zuten eta aurkariak menderatzen hasi ziren. 11 tanto egin zituzten jarraian.

Esanak esan, hasiera bereziki zaila izan zen arren, partidari neurria hartzen jakin zuten Rekaldek eta Altunak. Azkenean, 8 tantoko aldeagatik irabazi zuten, nahiko lasai eta estutasun handirik gabe.



Aurreko jardunaldiko argazkia. LEIZARAN

## Lehen mailara igoera ziurtatuta, txapelketa irabazi nahi dute

**ESKUBALOIA** Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak igandean (10:15) partida erabakiorra jokatu du, Allurralden

**Mikel Arberas** ANDOAIN

Bi aste atzera, eta denboraldi ikusgarria egin eta gero, senior mailako mutilek igoera ziurtatu zuten. Gauzak horrela, segurua da hurrengo denboraldian Gipuzkoako Lehen Mailan ariko direla. Igande honetan Bigarren Mailako azken partida jokatu dute, hitzordu erabakiorra. Egingako denboraldia bikaina izaten ari bada ere, irabaztearekin ligan egindako guztia borobilduko litzateke. Izan ere, aipagarria egiten ari diren denboraldia. 17 partida jokatu dituzte, horietatik 16 irabaziz eta bakarra galduz.

Egoera berean dago Munttarpe taldea, baina, golen aldeagatik, lehen postuan dago. Igoera ziurtatuta, txapelketa irabazteko ezinbesteko baldintza Allurraldeko azken partida hori irabaztea da. Eta, ondoren, Munttarpek egingo duenaren zain egon.

Leizaran taldeak partidara animoak ematera deitu ditu herrikideak: "Zaletuei gerturatzea eskatzen diegu taldeari merezi duen harrera beroa emateko. Egin duten denboraldia ona izan delako, eta gainera txapelketa lor dezaketelako". Allurralden ospatzea ametsa litzateke.

## Igoera postuetara gerturatzeke kemena erakusten ari dira

**ESKUBALOIA** Senior mailako bi taldeak igoera postuetara irteteko borrokan ari dira. Biak ere etxean ariko dira

**Erredakzioa** ANDOAIN

Ez da erraza izango, gertuen dituzten aurkariak ere partidak irabazten jarraitzen dutelako. Baina andoaindarrei eta urnietarrei ez zaie kemena faltako. Saiatuko dira, aukera guztiak ahitu arte.

Urnietako taldeak nahiko erraz irabazi zuen. Lehen minututik maila ona erakutsi zuten; eraso eraginkorra eta defentsa sendoa. Quel Abogados taldeak igoera eskuratzeko lehian, hiru puntu garrantzitsu eskuratu dituzte.

### EMAKUMEZKOEN LIGA

#### 17. JARDUNALDIA

Egia 2-Urnieta	15-25
Urola-Leizaran	18-33

#### SAILKAPENA

1	Ereintza	24 puntu
2	Tolosa	24 puntu
3	Elgoibar	23 puntu
4	Leizaran	22 puntu
6	Urnieta	21 puntu

#### 18. JARDUNALDIA

Urnieta-Urola
Leizaran-Txingudi



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 11

**ANDOAIN Erakusketa**

"Luminiszentek", Mariezkurrena kazetaria eta Pastor argazkilaria. Emakumeen egoera gordina zapalduak lurraldeetan. *Bastero. Apirilak 1 bitarte.*

**ANDOAIN Ikastaroa**

Autodefentsa ikastaroa, martxoaren 8ko egitarauaren baitan. *18:00, Gazte lokala.*

**ANDOAIN Ikuskizuna**

Flamenko ikuskizuna. Katxalinen alde, Zuen elkarteak antolatuta. *20:00, Bastero.*

**URNIETA Antzerkia**

"Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi". *19:00, Sarobe.*

**URNIETA Elkartasuna**

Ukrainarrei elikagaiak eta bestelakoak helarazteko deialdia. Xehetasunak 11. orrialdean. *09:00-13:00 eta 16:30-19:30, Parrokiako lokala, Iurreamendi 2.*

**URNIETA Jabekuntza Eskola**

Pepa Bojo, Amher, Emagin... eskaintza zabala udaberrian. Izen-ematea Urnieta.eus, Bertan edo Gazte Informazio puntua. *Izena emateko azken eguna.*

## LARUNBATA 12

**URNIETA Elkartasuna**

Ukrainarrei elikagaiak eta bestelakoak helarazteko deialdia. Xehetasunak 11. orrialdean. *11:00-13:00, Parrokiako lokala, Yurramendi 2.*

## ASTELEHENA 14

**ANDOAIN Odol-ematea**

Odol-emaileen hitzordua. *16:30-20:30, Anbulatorioa.*

**ANDOAIN Aurkezpena**

Julene Azpeitia emakume aitzindariaren liburuaren aurkezpen ekitaldia, Larramendi Bazkunaren eskutik. *18:30, Bastero.*



Benito Lertxundi kantaria. WIKIPEDIA

**ANDOAIN Benito Lertxundi, zuzenean**

Euskal kantagintza garaikidearen ikur bilakatuta, Bastero Kulturgunean gaurko eta atzoko kantak eskainiko ditu. Gabonetan emanaldia eskaintzekoa zen, baina COVID-19 protokoloak tarteko, emanaldia atzeratzea erabaki zen. *Martxoak 13, igandea. 19:00, Bastero.*

## ASTEARTEA 15

**URNIETA Odol-ematea**

Odol-emaileen hitzordua. *16:30-20:30, Lekaio.*

**ANDOAIN Dokumentala**

"Woman" dokumentala. Gonbidapenak Basteron eta Gizarte Zerbitzuen lansailan eskuragarri. *18:30, Bastero.*

## OSTEGUNA 17

**ANDOAIN Dokumentala**

"Gure Hots", Leire Zinkunegi eta Arrate Fernandezek eskutik. Irantzu Varelaren, Caroline Philipsen, Josebe Iturriotzen, Nekane Juradoren eta beste askoren ahotsak bildu dituzte. *18:30, Bastero.*

## OSTIRALA 18

**URNIETA Parte-hartzea**

2023ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeke parte hartze prozesua. Informazio-karpa: *10:00-14:30, Etxeberri plazan. 17:00-20:00, Guria inguruan.*

**ANDOAIN Kontzertua**

Kerobia taldea zuzenean ariko da. Etenaldi luze baten ostean martxan dira berriro. "Hilak" album berriena aurkeztera datoz Andoainera. *20:30, Bastero.*

## LARUNBATA 19

**ANDOAIN Jardunaldia**

Beterri-Buruntzako emakumeen II. pala txapelketa. *17:00-20:00, Arrate.*

**URNIETA Parte-hartzea**


2023ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeke parte hartze prozesua. Informazio-karpa: *10:00-14:30, San Juan plaza.*

## IGANDEA 20

**URNIETA Dantza**

"Migratzaileak", Aukeran dantza taldearen eskutik. Migrazioa mugimendua da. Eta mugimendua arintasuna, mugarik eza. Aukeran dantza konpainiak emanaldi honekin hori bera proposatzen dio publikoari: mugimenduari irekitzeko ariketa bat. *19:00, Sarobe.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

**Un pequeño mundo**  
Lar., 12. 19:30, 22:00.  
Ast., 14. 19:30, 22:00.

**El triunfo**


Lar., 19. 19:30, 22:00.  
Ig., 20. 19:30.  
Ast., 21. 19:30, 22:00.

**Ainbo**

Lar., 19. 17:00.  
Ig., 20. 17:00.

**Woman**

Martxoaren 8ko egitarauaren baitan. Dokumentala. Astearte, 15. 18:30.



## SINOPSIS

**UN PEQUEÑO MUNDO**

**Zuzendaria eta gidoia:** Laura Wandel. **Aktoreak:** Maya Vanderbeque, Günter Duret, Karim Leklou... **Herrialdea:** Belgika. **Generoa:** Drama, hezkuntza. **Iraupena:** 72 minutu. **Urtea:** 2021.

## Eskola jazarpenari buruzko filma

Nora Lehen Hezkuntzan ikasteari ekin eta Abel anaiak pairatzen duen jazarpena bere begiekin ikusiko du. Norak eskolan murgildu nahi du, eta bere anaiak isiltasunari eusteko eskatzen dio. Kritikaren aldetik txaloak jaso ditu.

Askoren artean, honakoa: "Wandelen opera prima handia. Eskola-jazarpena bezalako gaitz zahar bat kontatzeko modu sentikorra, argia, sakona eta berritzailea aurkitzen du". Iazko Cannes jaialdian Fipresci saria eskuratu zuen.

**WOMAN**

**Zuzendaria, gidoia:** Yann Arthus-Bertrand, Anastasia Mikova... **Herrialdea:** Frantzia. **Generoa:** Dokumentala, feminismoa. **Iraupena:** 104 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

## Dokumentala martxoaren 15ean

Lehen pertsona egindako topaketetan oinarrituta, proiektuak amatasuna, hezkuntza, ezkontza, independentzia ekonomikoa,

hilekoa edo sexualitatea bezalako gaiak jorratzen ditu. Gizarte Zerbitzuetako lansailan edota Basteron eskuratu daitezke gonbidapenak.





Jorge Segurado eta Mikel Pagola aurkezpen ekitaldian. AIURRI

## Dinamika parte-hartzaile berria deitu du Urnietako Udalak

2023ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabaki nahi du Udalak, herritarren inplikazioarekin


### Erredakzioa URNIETA

Prozesua dagoeneko ezaguna da urnietarrentzat, baina hura gora ekartzea komeni da. Martxoaren 27ra bitarte herritarrek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte. Dinamika honetan, gainera, "16 urte baino gehiago dituen Urnietan errol-datutako edozein pertsonak parte har dezake". Behin proposamenak aurkeztuta, Udal teknikariek proposamen horiek aztertu eta bideragarritasunaren arabera zerrenda egingo dute. 2023an zehar gauzatuko dira aukeratutako egitasmoak.

### Aurkez daitezkeen proposamenak

Udalak zehaztasun hauek egin ditu, proposamenak direla-eta: 1. Udal-eskumenekoak diren proposamenak, jarduera-arlo hauei lotuta: obrak, hirigintza eta mantentze-lanak.

2. Ekonomia edo/eta teknika aldetik bideragarriak diren proposamenak. Gauzatzeko 50.000 baino gehiagoko kosturik ez dutenak.
3. Iraunkortasun ekonomiko eta finantzarioa bermatzen dutenak.
4. Urnietan bizi diren herritar guztien interesa norberaren interesen gainetik jartzen duten proposamenak.
5. Udalerriko auzoen arteko oreka bermatzen duten proposamenak. Urnietako Udalak afitxa bat argitaratu du, eta bertan idatzi behar dira proposamenak. Udalerrian zehar dauden kutxatan edo buzoitan utz daitezke. Beste aukera da Urnieta APPren edota Urnieta.eus webgunearen bidez parte hartzea. Informazio karpa ere ipiniko dute, hilaren 18an eta 19an. Aiurriko Agenda atalean kontsulta daiteke.



Olio, mahonesa, pasta eta kontserbak eta beste zenbait produktu gehiagoren falta izango dugu laster. AIURRI

## Produktuen eskasia eta prezioen gorakada etengabea

Merkataritzaren egoeraren errpasoa Ana Arraiza (Aliprox) eta Ane Roig (Coviran) saltokietako langileen eskutik

### Mikel Arberas ANDOAIN

Azken egunetan, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerra medio, erregaien, elektrizitatearen, gasaren eta hainbat produkturen prezioak nabarmen igo dira. Oraingoz, tendentzia horrek okerrera egingo duela aurreikusten da. Horrek zuzenean herritarren bizi-kalitatean eragiten ari da, negatiboki.

### "Ohiturak aldatzeko unea da"

Ana Arraiza Aliprox saltokiko langileak argi adierazi du, "nire ustez, egoera honek epe laburrean ez du atzerabuelarik izango; janariari dagokionez, ohiturak aldatzeko mementoa iritsi dela esango nuke. Adibidez, lekale gehiago kontsumitzen hasi beharko dugu, asko dagoen eta faltako ez den produktua delako". Batez ere, ekilore-olioaren falta handia dago, supermerkatu handietan amaitzen ari da; hori

gutxi balitz, preziek gorantz egin dute: "Koipesol ekilore-olioa litroko 15 zentimo garestitu da, 0,60 eurotik 0,75era. Oliotik eratorritako produktu gehienak ere falta zaizkigu, besteak beste arrain-kontserbak, pasta, eta, aurki, mahonesa bezalako saltsak ere". Bestalde, "gaurtik aurrera ogiaren prezioa garestitu egingo da, 10 zentimo", erantsi du Ane Roig Coviraneko langileak ere.

### Autonomoentzat egoera larria

Egoera larritzat jo dute bi langileek eta herritarrek egoera, bereziki, lazarriak jasan beharko dituztela aitortu dute: "Kalera irten beharko ginatete; agian ez du ezertarako balioko, baina, behintzat, entzun beharko ligukete. Txepelak gabela dirudi", adierazi du Roigek. Bere ustean "zenbait autonomok ateak itxi beharko dituzte, prezioen igoerari eutsi ezinik".

## ZORION AGURRAK



### ANDOAIN

#### Inge Azpiroz

Martxoaren 6an 12 urte beteko dituzu. Urte askotarako Inge! Muxuak etxeko guztion partez!!

## ASTE SANTUA

### DEIALDIA

Euskaldunako mendigoizaleen irteera Aste Santurako, apirilaren 14-18rako. Alacanteko Mariola eta Bernako mendilerroetan zeharkaldi bana. Informazio gehiago, 943592232 telefonora hots eginda (astearte eta ostegunetan, 19:00-20:30).

## ODOL-EMAILEAK



### Martxoak 14, astelehena.

16:30-20:30. Anbulatorioa, Andoain.

### Martxoak 15, asteartea.

16:30-20:30. Lekaio, Urnieta.

## Outlet kalean

Salkinek antolatuta, outlet ekimenarekin bat egin zuten Andoingo merkatarik askok. Egun seinatua ostiralekoa bazen ere, aurretik eta ondoren outlet eskaintzak aukeran zeuden hainbat dendatan. Euriak eta hotzak bere agerpena egin bazuen ere, merkatarik ez ziren kokildu. Are gutxiago Gora Kaletxiki txarangako kideei. Kalea girotu zuten, euriari aurre eginez.



Urnietako  
udala



# Tokiko merkatarien apustua, euskararen alde

Euskara Zerbitzuak martxan jarri zuen, iragan otsailaren 2an, merkatariaik euskaraz ikasteko ekimena, euskara sustatu eta zerbitzu osatuago bat emate aldera. Zortzi dira euskara ikasten hasi diren merkatariaik



Idoia Bengoetxea AEKko irakaslea, Manoli Palacin (Gloss), Ana Sanchez eta Natalia Garcia (Cisneros), Francismier Ruiz (Francismier ileapaindegia), Marc Aira (Keinu), Alberto Cabezas (Larru-Txoko) eta Patxi Bergara (Ciclos Patxi). AIURRI

## Mikel Arberas ANDOAIN

Euskara eta merkataritza uzartzeko ikastaroa martxan jarri du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Euskara Zerbitzuaren esanetan, bultzada bat eman nahi zaio sektoreari, eremu horretan ere euskararen normalizaziorako urratsak emateko. Horrez gain, ikastaro baliagarria izango dela aitortu dute herrian merkataria eta ostalariek zerbitzu "hobeagoa" eta "osatuagoa" emateko.

Jone Tolosa Euskaltegiko Zuzendariaren esanetan, ikastaroaren xedea argia da: "Bezeroekiko oinarrizko ahozko harremanetan euskara erabiltzeko trebatzea eta dendetan egon ohi den ageriko informazioa euskaraz sortzeko gaitasuna lortu behar dute". Esanak esan, 60 orduko ikastaroa da honakoa, eta otsailaren 2tik maiatzaren 25era arte iraungo du. Asteazkenetan elkartzen dira merkatariaik 14:00etatik 16:00tara. Idoia Bengoetxea da ikastaroko irakaslea: "Ahozko egoerak lantzen dira batez ere, baina oinarrizko idatziak euskaraz idazten ere ikasiko dute ikasleek. Hau da, merkatariek ulermena landuko dute, batez ere; bezeroek euskaraz egindako eskari errazak ulertzea da helburua".

Ikastaroko ikasleek ere badute zer esan, "oso ekimen interesgarria iruditu zaigu. Sarritan, hanka-motz ikusten gara, bezeroak euskarazko zerbitzua jaso

nahi duelako eta ez garelako gai. Gure bezeroek eskubidea dute euskaraz artatuak izateko, beraz, aukera ezin hobea iruditu zaigu Udalak proposatutako ikastaroa". Zortzi dira ikastaroan parte hartzen ari diren ikasleak; komertzio ezberdinetako langileak dira, hala nola bizikleta denda edota arropa denda, beste batzuen artean. Batzuetan, eguerdietan, euskara ikastea eta jarraikortasun bat ematea gogorra egiten zaie-la aitortu duten arren, euskara ikasteko nahi bizia adierazi dute: "Ez da erraza lanetik irten eta 14:00etan Euskaltegira joatea, baina giro oso ona dugu taldean, ondo pasatzen dugu. Oraindik ikasteke asko dugun arren, aurrerapausoak ematen ari gara eta, gutxinaka, lotsa ere galtzen goaz".

Ikasleek adierazi dutenaren arabera, lotsa izan ohi da euskara erabiltzearen oztopo nagusia, baina apurka pentsakera hori hausten ari dira, "euskara ikasteko gogo bizia dutela nabari da, asko saiatzen dira eta hori oso pozgarria da", dio Bengoetxea irakasleak.

## HIRUROGEI ORDUKO OINARRIZKO IKASTAROA EGITEN ARI DIRA, AEK-REN ESKUTIK



## ASKATASUN EGUZKIA BAINO BEHARRAGO

JULENE AZPEITIA GOMEZ  
(1888-1980): BIOGRAFIA ETA OBRA

SALGAI: online,  
larramendibazkuna.eus



## MARTXOAK 14, astelehena

18:30 Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan

**Julene Azpeitia:**  
emakume aitzindaria euskal literaturan.  
*Askatasun eguzkia baino beharrago bere biografia eta obrari buruzko liburuaren aurkezpena*

Antolatzailea:  
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna